

ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2024-2027)



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Instituta

Gobierno
de Navarra




Nafarroako
Gobernua



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ARAUDI-MARKOA	5
3. LAN-PROZESUA	9
4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA	11
4.1. PLANAREN PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK	11
4.2. ESKU-HARTZE ARLOAK ETA PROGRAMAK	13
4.3. HELBURUAK, NEURRIAK, EPEAK ETA ARDURADUNAK	20
1. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA	37
5.1. PLANA GARATZEKO EGITURAK	37
5.2. PLANA GARATZEKO BALIABIDE EKONOMIKOAK	39
5.3. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	40
5.4. PLANAREN KOMUNIKAZIOA	49



1. SARRERA

Altsasuko Udalak **hamabost urte baino gehiago** darama emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politikak planifikatzen. Horren adierazgarri da **dagoeneko bi plangintza landu, onartu eta garatu** izana:

- *Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Udalaren I. Jarduera Plana (2008-2011)*
- *Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako II. Jarduera Plana (2016-2019)*

II. Jarduera Planaren indarraldia 2019an amaitzen bazen ere, orduko Berdintasun Batzordeak adostu zuen oraindik neurri batzuen garapena sendotu beharrean zegoela, eta jasotako beste neurri batzuk garatzeke zeudela; honenbestez, Altsasuko Udalaren Udalbatzak, 2019ko urriaren 30ean bilduta, *II. Jarduera Planaren* indarraldia 2023ra arte luzatzea onartu zuen.

2022. urtean *II. Jarduera Plana* ebaluatzeko parte-hartze prozesua abiatu zuen Udalak, orain arte egindako lanaren balantzea egin eta egungo erronkak identifikatzeko. Ebaluazio horretan oinarrituta, eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Altsasuko Udalaren Ordenantzan* jasotakoa aintzat hartuta, **Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana** diseinatu du, lau urteko indarraldia izanen duena (2024-2027) eta txosten honetan aurkezten dena.

1. SARRERA

Planaren helburu nagusia da gizarte berdinzaleago baten alde urratsak egitea, genero-desberdintasunak gutxituz eta **Altsasuko herritarren eta, bereziki, emakumeen bizi-baldintzak hobetuz.**

Planaren txostenak guztira **bost atal** nagusi hauek ditu:

- Sarrera
- Araudi-markoa
- Lan-prozesua
- Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana
- Planaren kudeaketa-sistema

Aukera hau baliatu nahi dugu gure **eskerrik beroenak emateko** II. *Jarduera Planaren* ebaluazioan nahiz *Berdintasunerako III. Planaren* diseinuan parte hartu duten emakumeei, udal-teknikari, ordezkari politiko, langile, elkarte edo eragile eta norbanako guztiei; txosten hau horien guztien ekarpenen emaitza da*.

OHARRA*: Txosten honetan emakume eta gizon kategoriak erabiliko ditugu oraindik gure egungo errealitatea aztertzeko eta bertan eragiteko baliagarriak direlakoan. Halere, argitu nahi dugu kategoria horiei buruz zentzu zabalean hitz egingen dugula, sexu-generoak ezarritako binarismoak ez baitu ordezkatzeko emakume, gizon nahiz bestelako genero-identitate gisa identifikatzeko orduan dauden esperientzia anitzak.

2. ARAUDI-MARKOIA

Jarraian, berdintasunerako politikei lotutako araudia jaso dugu.

Plan honek bere egiten ditu nazioarteko, Europako, Espainiar Estatuko eta Nafarroako lege, itun edota hitzarmen azpimarragarrien horiek zehazten dituzten printzipio, definizio kontzeptual nahiz jardute-printzipioak.

NAZIOARTEA ETA EUROPA



Emakumeen aurkako bereizkeria guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa, 1979.



Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, 2015.



Beijingo Adierazpena, 1995.



Amsterdamgo Ituna, 1999.

2. ARAUDI-MARKOIA

ESPAINIAR ESTATUA



Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa.



10/2022 Lege Organikoa, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa.



9/2018 Errege Lege Dekretua, Genero-indarkeriaren kontrako Estatuko Ituna garatzeko presazko neurriei buruzkoa.

2. ARAUDI-MARKOIA


NAFARROA



Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea.



Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa, 2022.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea.



Genero-berdintasuna Nafarroako toki-erakundeetan. Udaletako berdintasun-alorren lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko libilbidea, 2014.

2. ARAUDI-MARKOA

ALTSASU



**Emakumeen eta gizonen berdintasunerako
Altsasuko Udalaren ordenantza, 2023.**



**Ordenantza, hizkera eta irudi ez-
baztertzailearen erabilera arautzen
duena, 2011.**



**Ordenantza, Altsasuko Udalak
dirulaguntzak ematea arautzen duena,
2010.**

3. LAN-PROZESUA

2022ko irailean abiatu genuen Berdintasunerako II. Jarduera Plana ebaluatzeko prozesua, eta 2023ko irailean amaitu genuen. Plana ebaluatzeko bildutako informazioarekin eta Altsasuko gaur egungo errealitatearen inguruko hainbat datuekin [Altsasuko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Jarduera Planaren ebaluazioa eta gaur egungo egoeraren azterketa](#) osatu dugu, eta txostena Udalaren webgunean eskuragarri dago.

Azterketa horretatik ateratako ondorio nagusiak eta etorkizuneko erronkak kontuan hartuta diseinatu dugu *Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana*. Behin Berdintasun Arloak Planaren lehen proposamena landuta, berau udal-ordezkariekin nahiz herritarrekin kontrastatu dugu.

Hauek izan dira prozesu honetako **fase nagusiak**:



3. LAN-PROZESUA

Berdintasunerako III. Plana kontrastatzeko guztira 6 lansaio egin ditugu. Jarraian jaso ditugu lansaio horien hartzaileak eta datak:

Udal- teknikariak	Kanpo- teknikariak	Mugimendu Feminista	Emakume migratzaileak	Herritarrak	Ordezkar politikoak
• Urriak 17	• Azaroak 2	• Urtarrilak 31	• Otsailak 7	• Otsailak 21	• Maiatzak 6

Guztira **41 lagunek** hartu dute parte prozesuan: 34 emakumek eta 7 gizonek.







4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.1. Planaren printzipioak eta bermeak

Berdintasunerako III. Planak, araudi-markoan aipatu bezala, bere egiten ditu Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak jasotako printzipioak. Horiez gain, printzipio hauek gehitzen ditu:

PRINTZIPIOAK

-  **Paradigma feminista.** Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko eta politiko honetan. Plana ikuspegi hau aintzat hartuta garatuko dugu.
-  **Genero-ikuspegia txertatzea.** Egun oraindik bizitzaren alor ezberdinetan indarrean dauden genero-desberdintasunak ikertzeko tresna metodologiko gisa erabiliko dugu egiten ditugun analisietan.
-  **Interseksionalitatea.** Kategoria sozial eta kulturelek modu askotan eta aldi berean elkarri eragiten diotela azaltzen duen teoria; horien artean sartzen dira, besteak beste, generoa, hizkuntza, klasea, sexu-orientazioa, etnia eta adina. Plana ikuspegi hau aintzat hartuta garatuko dugu.
-  **Parte-hartzea.** Oro har, herritarren eta, bereziki, emakumeen benetako parte-hartzea sustatuko dugu, gaiak elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait berria sortzeko.

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.1. Planaren printzipioak eta bermeak

Bestalde, Planak berme hauek izanen ditu:

BERMEAK

Berdintasunarekiko konpromiso politikoa. Udalbatzak konpromisoa hartu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin eta Plan honen garapenarekin.


Baliabideak: Planak garapenerako behar diren baliabide ekonomikoak ditu, bai Berdintasun Arloaren aurrekontuarekin bai beste arlo batzuetako aurrekontu berariazkoekin. Halaber, Udalaren giza baliabideak eta baliabide teknikoak ditu.

Erantzunkidetasuna: Plana Udal osoaren ardura izatea, eta inplikaturako udal-sailen arteko lankidetzan garatzea.

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak **5 esku-hartze arlo** hauek ditu:



4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

Jarraian, esku-hartze arlo bakoitzaren programak eta neurri-kopurua jaso dugu:

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
1. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARLERROTASUNA	BERDINTASUN-POLITIKETARAKO BALDINTZAK	2 neurri
	BERDINTASUN-POLITIKEN KUDEAKETA	5 neurri
	BERDINTASUN-POLITIKETARAKO EGITURAK ETA KOORDINAZIOA	5 neurri

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
1. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARLERROTASUNA	GENERO-ZEHARLERROTASUNERAKO TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA	3 neurri
	BERDINTASUN-PRINTZIPIOA LAN-PROZEDURETAN	9 neurri
	BERDINTASUN-PRINTZIPIOA POLITIKA SEKTORIALETAN	5 neurri

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
2. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA	8 neurri
	INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	7 neurri

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
3. ZAINZAK ETA BIZITZAK POLITIKA PUBLIKOEN ERDIGUNEAN	HERRITARREN ONGIZATEA ETA ZAINZAREN ETIKA	5 neurri
		2 neurri

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	EMAKUMEEN AUTONOMIA, AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA	6 neurri
	EMAKUMEEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	3 neurri

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.2. Esku-hartze arloak eta programak

ESKU-HARTZE ARLOA	PROGRAMAK	NEURRIAK
5. HERRI BERDINZALEA	HEZKIDETZA	2 neurri
	HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA	3 neurri
	OROIMEN HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA	Neurri bat

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
T.G.1. Berdintasun-politikak garatzeko baldintza egokiak bermatzea.	T.G.1.1. Berdintasun Zerbitzuaren jarduera mantentzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak egonkortu, berdintasunerako trebakuntza espezifikoa eskatuz.	2025	ALKATETZA
	T.G.1.2. Berdintasunerako esku-hartzerako gutxienez udal-aurrekontuaren % 1,4a bermatu urtero.	2024-2027	ALKATETZA UDALBATZA
T.G.2. Berdintasunerako III. Plana garatzea, segimendua egitea, ebaluatzea eta ikusaraztea.	T.G.2.1. Berdintasunerako III. Plana Udalbatzan onartu eta abiatu.	2024	UDALBATZA
	T.G.2.2. Berdintasunerako III. Plana garatu, urteko lan-plangintzak diseinatu.	2024-2027	BERDINTASUNA
	T.G.2.3. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egin, urte bukaeran memoria-txostenean jaso neurrien nahiz helburuen betetze-maila.	2024-2027	BERDINTASUNA TOKIKO GOBERNU BATZORDEA
	T.G.2.4. Planaren indarraldiaren bukaeran Planaren ebaluazioa egin, ondoren IV. Plana diseinatzeko.	2027	BERDINTASUNA
	T.G.2.5. Udal barruan nahiz herritarrei begira egindako lanaren berri eman, Udalaren webgunea, sare sozialak nahiz komunikabideen bidez.	2024-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
T.G.3. Genero-zeharlerrotasuneko estrategia garatzeko egiturak, lankidetzak eta koordinazioa bermatzea.	T.G.3.1. Emakume eta Berdintasun Batzordea mantendu eta berorren bidez Berdintasunerako III. Planaren garapena gidatu eta etengabeko segimendua egin urte osoan zehar.	2024-2027	ALKATETZA EMAKUME ETA BERDINTASUN BATZORDEA
	T.G.3.2. Berdintasunerako Lantalde Teknikoa bildu gutxienez bi helburu hauekin: aurreko urteko lana ebaluatzeko eta urteko lan-plangintza aurkeztu, kontrastatu eta adosteko. Beharrezkoa bada, berariazko lanketak egiteko urtean zehar ere bilerak egin.	2024-2027	BERDINTASUNA
	T.G.3.3. Udal-sailetako, Udalaren erakunde autonomoetako nahiz eskualde-mailako zerbitzuei berdintasun-politikak garatzeko aholkularitza eskaini.	2024-2027	BERDINTASUNA
	T.G.3.4. Berdintasun-teknikariak proposatu eta Udalak onartuta, berdintasunaren eremuan dauden Sakanako eta Nafarroako egituretan parte hartu.	2024-2027	BERDINTASUNA ALKATETZA
	T.G.3.5. Herritarrek parte hartzeko guneak sortu, elkarlanean politika feministak garatzeko.	2024-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
T.G.4. Udal-teknikariak eta -politikariak gaitzea, haien alorretan genero-ikuspegia barneratzeko eta Berdintasun Arloarekin helburu horri begira lankidetzan aritzeko.	T.G.4.1. Udal-ordezkarik politikoek, -teknikariek eta -langileek berdintasun-alorrean duten formakuntza-mailaren inguruko diagnostikoa egin.	2024	BERDINTASUNA GIZA BALIABIDEEN ARLOA
	T.G.4.2. Diagnostikoan ateratako ondorioak kontuan hartuta, trebakuntza-plana diseinatu, onartu eta progresiboki langileen lanaldiaren barruan garatu. Planaren indarraldia amaitzean, jasotako trebakuntzaren balorazioa egin eta aurrera begirako urratsak diseinatu.	2025-2027	ALKATETZA BERDINTASUNA
	T.G.4.3. Udal Gobernu berriko kideekin lansaioak egin genero-berdintasunaren eta genero-zeharlerrotasunaren estrategiaren inguruan trebatzeko, eta Udalak berdintasun-politiken eremuan dituen politika esanguratsuenen berri emateko.	2024	BERDINTASUNA
T.G.5. Udal-araudian genero-ikuspegia txertatzea.	T.G.5.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Altsasuko Udalaren Ordenantza urtez urte garatu; bertan jasotako betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.	2024-2027	ALKATETZA BERDINTASUN BATZORDEKO LEHENDAKARIA
	T.G.5.2. Berdintasunerako Ordenantzan jasotako prozedura kontuan hartuta, Altsasuko udal-araudietan genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dituen txosten-eredua diseinatu eta Udalbatzan onartu.	2025	BERDINTASUNA IDAZKARITZA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
T.G.6. Genero-ikuspegia txertatzea udal-aurrekontuetan.	T.G.6.1. Genero-berdintasuna udal-aurrekontuetan txertatzeko programa garatu, udal-aurrekontuaren proposamenean, kudeaketan eta likidapenean genero-ikuspegia aplikatzeko.	2024-2026	BERDINTASUNA KONTU-HARTZAILETA
	T.G.6.2. Garatutako programa ebaluatu eta aurrera begirako urratsak zehaztu.	2026	BERDINTASUNA LANTALDE TEKNIKOA
T.G.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.	T.G.7.1. Udal-kontratazioetan berdintasun-klausulak txertatzeko dokumentu lagungarria diseinatu.	2024-2025	BERDINTASUNA IDAZKARITZA
	T.G.7.2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatutako berdintasun-irizpideen betetze-mailari jarraipena egiteko tresna bat diseinatu.	2024-2025	BERDINTASUNA IDAZKARITZA
T.G.8. Udal-organo nahiz gainontzeko guneetan emakumeen eta gizonezkoen arteko ordezkariak bermatzea.	T.G.8.1. Udal-organoen (batzordeak, kontseiluak, Udal Gobernuak...) osaeraren jarraipena egin genero-ikuspegitik.	2024-2027	BERDINTASUNA
	T.G.8.2. Udalak egiten dituen kanpo-agerraldietan (prentsurrekoak, omenaldiak, aitortzak...) nahiz eratzten dituen epaimahaietan sexuen arteko ordezkariak bermatzeko neurriak hartu.	2024-2027	ALKATETZA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
T.G.9. Udal-estatistika eta -azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	T.G.9.1. Udal-sailen datu-bilketa guztietan (inprimakiak, inkestak, estatistikak...) sexuaren aldagaia txertatzen dela bermatu.	2024	ALKATETZA
T.G.10. Udaleko barne Berdintasunerako I. Plana garatzea.	T.G.10.1. Udaleko barne Berdintasunerako I. Planean aurreikusitako ekintzak martxan jarri, Berdintasunerako Lantaldean adostutako urtekako kudeaketa-planen bidez.	2024-2027	BERDINTASUN LANTALDEA BERDINTASUNA
	T.G.10.2. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako Protokoloa indarrean dagoela gogorarazi langileei urtero, eta baita aholkulari konfidentzialak nor diren ere.	2024-2027	LANGILEEN BATZORDEA GIZA BALIABIDEAK
T.G.11. Eskualdeko garapen-estrategian genero-berdintasunaren printzipioa jasotzea.	T.G.11.1. Eskualdeko Plan Estrategikoa nahiz garapen-estrategia genero-ikuspegia aintzat hartuta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu eta horiei jarraipena egin.	2024-2027	ALKATETZA
	T.G.11.2. Eskualdea garatzeko sortzen diren mahai guztietan parte hartu eta aholku eman, hala behar denean, garapen estrategian genero ikuspegia txertatzeko.	2024-2027	ALKATETZA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
<p>T.G.12. Udaleko sailek bere politika eta jardueran genero-ikuspegia txertatzea.</p>	<p>T.G.12.1. Udal-sailekin, Udalaren erakunde autonomoetako (Musika eta Dantza Eskola...) nahiz eskualdeko teknikari eta langileekin (Gizarte Zerbitzuak, Euskara, Anitzartean...) etengabeko harremana eduki, beren politika eta esku-hartzeetan genero-ikuspegia nola txertatu lantzeko, modu progresiboan. Zehazki, lanketa hauei jarraipena emanez: Hirigintzarekin Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean genero-ikuspegia txertatzeko; Kulturarekin elkarlanean "Altsasuko jaiak berdinzalegoak egiteko prozesua"-n adostutako lanketak garatzeko; eta Kirolak, Gazteria eta Ludotekarekin egiten duten esku-hartzean genero-ikuspegia elkarlanean txertatzeko.</p>	<p>2024-2027</p>	<p>BERDINTASUNA KIROLAK KULTURA GAZTERIA LUDOTEKA HIRIGINTZA OGASUNA GIZA BALIABIDEAK GAINONTZEKO ZERBITZUAK</p>

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
I.M.1. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	I.M.1.1. Enplegu publikorako sarbidea bermatu eta ahalduntzeko estrategiak garatu indarkeria pairatzen duten emakumeekin eta, besteak beste, Altsasuko Enplegu Bulegoarekin sinaturiko hitzarmena bete.	2024-2027	BERDINTASUNA ENPLEGU BULEGOA
	I.M.1.2. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko Sakanako I. Lurralde Protokoloa garatu; urteko lan-plangintzak garatuz, kudeaketa-egituren aurreikusitako bilerak eginez, segimendurako tresnaren bidez eskuratutako datuetan oinarritutako txostenak eginez eta partekatuz, indarkeria-adierazpen eta -moten inguruko datuak eskualdean zabalduz, etab.	2024-2027	BERDINTASUNA BERDINTASUNA (MANK)
	I.M.1.3. Sakanako I. Lurralde Protokoloan parte hartzen duten eragileei etengabeko formakuntza eskaini.	2024-2027	BERDINTASUNA BERDINTASUNA (MANK)
	I.M.1.4. Indarkeria-egoeran dauden emakumeei arreta eta laguntza emateko eskuragarri dituzten baliabideen berri eman urtero, adina, jatorria edota bestelako aldagaiak kontuan hartuta, eta komunikazio-kanal ezberdinak erabilita: Udalaren webgunean informazioa ikusgai jarri, beharrezkoa bada, euskarri gehiago sortuz eta abar.	2024-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
I.M.1. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	I.M.1.5. Sakanako I. Lurralde Protokoloaren ebaluazioa egin.	2026	BERDINTASUNA BERDINTASUNA (MANK)
	I.M.1.6. Sakanako Mankomunitateko BERDINTASUNArekin eremu honetan elkarrekin jarduteko lankidetzarako hitzarmena sinatu (Mankomunitateko Berdintasunerako Planean ere jaso).	2024-2025	BERDINTASUNA BERDINTASUNA (MANK)
	I.M.1.7. Udalak VIOGEN sisteman parte hartzea ebaluatu eta, ateratzen diren ondorio nagusiak kontuan hartuta, Udaltzaingoak beste polizia-indarrekin koordinatzeko prozedura finkatu.	2025-2026	BERDINTASUNA UDALTZAINGOA
	I.M.1.8. Festen testuinguruan gertatzen diren eraso sexistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa egokitu, herriko mugimendu feministako eta jai-eragileetako ordezkariekin elkarlanean.	2024	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
I.M.2. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	I.M.2.1. Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko ekimenak antolatu (azaroak 25, maiatzak 17...), zaugarritasun-egoera berezian dauden kolektiboek dauzkaten beharrak eta interesak ikusgarri eginez: adineko emakumeak, lesbianak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.	2024-2027	BERDINTASUNA
	I.M.2.2.Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko Nafarroako kanpaina bateratuan parte hartu.	2024-2027	ALKATETZA UDALBATZA BERDINTASUNA
	I.M.2.3.Festen testuinguruan indarkeria matxistaren inguruko berariazko kanpainak antolatu, eta horretarako beharrezkoak diren euskarriak sortu edo daudenak berritu.	2024-2027	BERDINTASUNA
	I.M.2.4.Festen testuinguruan herriko tabernariekin indarkeria matxistaren inguruko lanketa egin, erasoei erantzuteko neurriak adostuz.	2024-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
I.M.2. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	I.M.2.5. Indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinen eta forma berrien (sare sozialak, esate baterako) inguruan gazteak sentsibilizatzeko ikastetxeetako ikasleekin sentsibilizazio-programa garatu.	2024-2027	BERDINTASUNA
	I.M.2.6. Emakumeei segurtasun eza eragin diezaieketen puntuekin herriko mapa osatu eta hobetzeko neurriak diseinatu.	2024-2025	HIRIGINTZA BERDINTASUNA
	I.M.2.7. Identifikatutako hobetu beharrekoak konpontzeko esku-hartzeak egin.	2026-2027	HIRIGINTZA BATZORDEA TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
Z.E.1. Bizitzaren jasagarritasunerako zaintza-lanek duten balioa eta eragina ikusaraztea, eta horien erantzunkidetasuna sustatzea.	Z.E.1.1. Zaintza-lanek bizitzaren jasagarritasunerako duten balioaren inguruan eta horiek erantzunkidetasunez garatzearen beharraren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak egin, ekonomia feministaren teoria ardatz hartuta.	2024-2027	BERDINTASUNA
	Z.E.1.2. Zaintza-lanek bizitzaren jasagarritasunerako duten balioa printzipio bezala jaso Gazteguneko, Ludotekako, Haur Eskolako, Musika eta Dantza Eskolako nahiz hezkuntza ez-formaleko gainontzeko zerbitzuetako helburu eta misioen artean.	2025	LUDOTEKA GAZTERIA TXIRINBULO HAURRESKOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA BERDINTASUNA
	Z.E.1.3. Nafarroako Zainketen aldeko Ituna sinatu eta garatu.	2025-2027	ALKATETZA BERDINTASUNA
	Z.E.1.4. Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza eskaintzeko dauden baliabideak eta Altsasuko zaintzaileen egoera aztertzeko diagnostikoa egin.	2025	BERDINTASUNA
	Z.E.1.5. Diagnostikoaren ondorioak kontuan hartuta, esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu.	2026-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
Z.E.2. Zaintzaile profesionalen eta zaintza-zerbitzuetako erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetzea.	Z.E.2.1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren egungo funtzionamendua baloratu bai zaintzaileen lan-baldintzen eta bai erabiltzaileen bizi-baldintzen ikuspegitik eta, ondorioak aintzat hartuta, hobekuntza-neurriak martxan jarri.	2025	BERDINTASUNA ALTSASU, OLAZTI ETA ZIORDIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA
	Z.E.2.2. Zaintzaile profesionalen lan-eskubideen gaineko aholkularitza- eta informazio-zerbitzua (NABI-ren eskumenekoa) herritarren artean zabaltzeko ekimenak egin.	2024-2027	BERDINTASUNA ALTSASU, OLAZTI ETA ZIORDIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	E.A.1.1. Emakumeen ahalduntzea sustatzeko proiektua diseinatu eta martxan jarri herriko mugimendu feministarekin elkarlanean, herriko emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.	2024	BERDINTASUNA
	E.A.1.2. Proiektua herriko emakumeen artean zabaltzeko bitartekoak sortu eta hedatu.	2024-2027	BERDINTASUNA
	E.A.1.3. Emakumeei beren osasunaren parte aktibo eta protagonista bilakatzen laguntzeko ekintzak eta programak bultzatu, arreta berezia jarrita beste jatorri batzuetako emakumeengan; eta haien ongizate fisikoa, emozionala eta sexuala hobetzera bideratutako proposamenak egin.	2025-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	E.A.1.4.Beste jatorri batzuetako emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzeko ekimenak egin, kulturartekotasuna bultzatuz.	2025-2027	BERDINTASUNA ANITZARTEAN
	E.A.1.5.Indarkeria-egoeratik atera diren emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzeko ekimenak egin.	2025-2027	BERDINTASUNA
	E.A.1.6.Emakumeentzako aholkularitza juridikoaren zerbitzua mantendu, eta berau herritarren artean ezagutarazteko neurriak hartu.	2024-2027	BERDINTASUNA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	E.A.2.1. Udalak antolatzen dituen parte-hartze prozesuak diseinatzerakoan, emakume-kolektibo jakinen partaidetza kuantitatiboa eta kualitatiboa bermatzeko neurriak zehaztu eta horien betetze-mailari jarraipena egin.	2024-2027	BERDINTASUNA
	E.A.2.2. Berdintasun Arloak mugimendu feministarekin hartu-eman estua izan dezan bultzatu, antolatzen dituzten jarduerak zabalduz edota eduki ditzaketen premiei erantzunez.	2024-2027	BERDINTASUNA
	E.A.2.3. Elkarte gastronomikoetan nahiz beste izaera batzuetako elkarteetan (kultur-elkarteak, kirol-elkarteak, festetako zenbait ekimen antolatzen dituzten eragileak...) dagoen berdintasun-egoeraren ignuruko azterketa egin, eta ondorioak kontuan hartuta, esku-hartzeko neurriak diseinatu eta garatu (hizkeraren erabilera, osaera, trebakuntza...).	2027	BERDINTASUNA KULTURA KIROLA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
H.B.1. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna eta tratu onen kultura lantzea.	H.B.1.1. Udalak antolatutako hezkidetza-programak garatu, trebakuntza-saioak antolatuz eta saretzea ahalbidetuz.	2024-2027	BERDINTASUNA
	H.B.1.2. Hezkidetzari buruzko sentsibilizazioa landu eskola-kiroleko, udaleku irekietako nahiz Gazteguneko hezitzaileekin, eta hezitzaileak kontratatzerakoan, hezkidetzan trebatuta daudela bermatzeko baldintzak ezarri.	2024-2027	BERDINTASUNA GAZTERIA LUDOTEKA KIROLA IDAZKARITZA

4. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

4.3. Helburuak, neurriak, epeak eta arduradunak

HELBURUAK	NEURRIAK	EPEAK	ARDURADUNAK
H.B.2. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.	H.B.2.1. Gizonezkoak feminismoan trebatzeko eta aldaketak eragiteko programa iraunkorra garatu.	2024-2027	BERDINTASUNA
	H.B.2.2. Herritarrak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeke ekimenak antolatu urte osoan zehar (arreta berezia jarrita martxoak 8, azaroak 25... bezalako egunetan), mugimendu feministarekin koordinatuta.	2024-2027	BERDINTASUNA
	H.B.2.3. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta LGTBI+ taldeek nozitzen duten diskriminazioen inguruan hausnarketa eragiteko ekimenak antolatu.	2024-2027	BERDINTASUNA
H.B.3. Emakumeen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.	H.B.3.1. Emakumeek herrian egindako lana eta ekarpena ikusarazteko eta aitortzeko ikerketa-bekaren deialdia egin.	2026-2027	ALKATETZA TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.1. Plana garatzeko egiturak

Plana **genero-zeharlerrotasunaren** ikuspegitik landuko dugunez, Udalaren sail eta arlo guztien inplikazioarekin garatuko dugu. Dena den, bertan jasotako helburuak lortzeko, **lanerako egitura nagusi** hauek izanen ditugu:

- **Parte-hartzaileak:** Berdintasun-zinegotzia eta Berdintasun-teknikaria.
- **Funtzioak:**
 - Planeko neurriak bultzatzea eta koordinatzea.
 - Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
 - Helburuen eta epeen betetze-mailaren jarraipena egitea.
 - Beharra suertatuz gero, neurri zuzentzaileak proposatzea.
 - Planaren komunikazioa egitea.
 - Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.
- **Funtzionamendua:** Gutxienez hilean behin eginen dituzte koordinazio-bilerak; halere, etengabeko komunikazioa mantenduko da.

BERDINTASUN SAILA



- **Parte-hartzaileak:** Berdintasun-zinegotzia, Udaleko alderdietako ordezkari politikoak eta Berdintasun-teknikaria.
- **Funtzioak:**
 - Urteko lan-plangintzak adostea.
 - Planaren helburuen eta neurrien betetze-mailaren segimendua egitea.
 - Berdintasun Sailak aurkeztutako proposamenak baloratzea eta, hala adostuz gero, hauek aplikatzeko neurriak hartzea.
- **Funtzionamendua:** Urtean gutxienez sei bilera eginen ditu, gutxi gorabehera bi hilean behin.

EMAKUME ETA BERDINTASUN BATZORDEA



- **Parte-hartzaileak:** Udal-arloetako arduradun teknikoak eta Udalaren enpresa publiko eta erakunde autonomoko arduradunak (Musika eta Dantza Eskola eta ATABO).
- **Funtzioak:**
 - Urteko lan-plangintzak adostea.
 - Planaren helburuen eta neurrien betetze-mailaren segimendua egitea.
 - Udalean genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzeko komunikazioa ahalbidetzea.
- **Funtzionamendua:** Gutxienez urtean behin eginen du bilera; halere, udal-sailekin etengabeko komunikazioa mantenduko da.

BERDINTASUNERAKO LANTALDE TEKNIKOAK



5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.1. Plana garatzeko egiturak

Aipatutako egitura horiez gain, **Udaleko nahiz Udalez gaindiko bestelako koordinazio-guneetan** ere parte hartzen jarraituko du Berdintasun Sailak edota Udalak berak. Zentzu horretan, Sakanako Berdintasun Zerbitzuarekin etengabeko koordinazioa izanen du, eta eskualde-mailako hainbat lanketa-guneetan parte hartuko du; hala nola, Sakanako Enpresetako Genero Berdintasun Mahaian edota I. Lurralde Protokoloa kudeatzeko egituretan. Gainera, Nafarroako gainontzeko toki-entitateetako berdintasun-arloekin koordinatzeko espazioa den Nafarroako Berdintasunerako Teknikarien Sarean parte hartuko du, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin lankidetzan jardungo du.

Gune egonkor horiez gain, beharra suertatuz gero, Planean aurreikusitako neurriak garatzeko **berariazko lantaldeak** sortzeko aukera egonen da.

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Berdintasun Sailak urtero **aurrekontu propioa** edukiko du eta horrek, besteak beste, Berdintasunerako III. Planean jasotako neurriak garatzea ahalbidetuko du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Altsasuko Udalaren Ordenantzan jasotakoaren arabera, Berdintasun Sailaren aurrekontua gutxienez Udalaren **aurrekontu orokorraren % 1,4a** izanen da; izan ere, baliteke zenbait urtetan Planak aurrekontu handiagoa eskatzea garatu ahal izateko.

Bestalde, genero-berdintasuna udal-aurrekontuetan txertatzeko programaren baitan, gainontzeko Udal-sailek ere Planean beraiei dagozkien neurriak garatzeko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Planaren **etengabeko jarraipena eta ebaluazioa** funtsezkoak dira Planaren betetze-maila zein den eta martxan jarritako neurriek zer inpaktu izan duten jakiteko. Zentzu horretan, **bi ebaluazio-mota nagusi** burutuko ditugu: alde batetik, neurrien betetze-mailari dagokiona; eta, bestetik, emaitzei edota Planaren inpaktuari dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, **helburu hauek** lortu ahal izango ditugu:

- *Altsasuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana* aplikatzeak eman dituen **emaitzak ezagutzea**.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako **arazoak detektatzea**.
- Berdintasun-politikak **erraztu edo lagundu dituzten faktoreak** identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herritarrengan izan duten balizko **inpaktua zein izan den ezagutzea**.

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Ebaluaziorako irizpide orokorrak, berriz, hauek izango dira:

- **Inpaktua:** Planak Udal barruan eta udalerrian izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.
- **Eraginkortasuna:** Planaren helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura:** Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea:** ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea:** Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.

Etengabeko jarraipena

Berdintasunerako III. Planari segimendua egin ahal izateko, Exceleko **tresna bat sortu** dugu. Tresna horrek Berdintasun-teknikariari Planaren segimendua era errazean egiten ahalbidetuko dio.

Tresnak hiru atal nagusi hauek ditu: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Plana bere osotasunean jasotzen duena, eta inpaktu-adierazleei dagokiona.

Tresna elikatzeaz Berdintasun-teknikaria arduratuko da nagusiki; hala ere, egokiena litzateke sailtako arduradunek bere arloari dagozkion neurrien betetze-maila osatzea. Honen segimendua egiteko sailen arteko guneak eratu ahalko dira.

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Urteko kudeaketa-plana eta memoria-txostenak

Plana urteko kudeaketa-planen bidez antolatu eta garatuko da. Indarrean egongo den urte bakoitzean **urteko kudeaketa-plana** prestatuko dugu, aintzat hartu beharreko helburuak eta neurriak zehaztu ahal izateko. Programazio horiek Berdintasun Sailak landuko ditu, eta eragindako gainerako udal-sailekin kontrastatuko ditu.

Planean neurri bakoitza zer urtetan burutu behar den zehaztuta dago, hala ere, **urtekako kudeaketa-planek** Planaren jarraipena erraztuko dute eta unean uneko beharretara egokitzea ahalbidetu; izan ere, Planaren aplikazioa malgua izanen da, testuinguruko baldintzetara moldatuz. Berdintasun Sailak urte hasieran kudeaketa-plana aurkeztuko du Emakume eta Berdintasun Batzordean nahiz Berdintasunerako Lantalde Teknikoan, horietan ekarpenak jaso, adostu eta urte osoan zehar garatzeko.

Horrez gain, urte amaieran **urteko plangintzaren memoria-txostena** egingen du Berdintasun Sailak, eta Emakume eta Berdintasun Batzordean nahiz Berdintasunerako Lantalde Teknikoan aurkeztu du. Txostenak aurreikusitako neurrien betetze-maila jasoko du, eta baita inpaktu-maila ere, beti ere horretarako beharrezkoak diren datuak baldin badaude.

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Inpaktu-adierazleak

Planaren garapena garrantzitsua da, baina neurrien betetze-maila neurtzea bezain garrantzitsua da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen **inpaktua neurtzea**. Horretarako, Planean proposatutako neurriak aintzat hartuta, helburu bakoitzean aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.

Jarraian jaso dugu **inpaktu-adierazleen zerrenda**. Horiei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak:

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

ESKU-HARTZE ARLOA	HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARLERROTASUNA	T.G.1. Berdintasun-politikak garatzeko baldintza egokiak bermatzea.	Berdintasun-teknikariaren lanpostua egonkortu izana Berdintasun-teknikariak berdintasuneko berariazko trebakuntza izatea
	T.G.2. Berdintasunerako III. Plana garatzea, segimendua egitea, ebaluatzea eta ikusaraztea.	Urteko lan-plangintza kopurua Urteko memoria-txosten kopurua
	T.G.3. Genero-zeharlerrotasuneko estrategia garatzeko egiturak, lankidetzak eta koordinazioa bermatzea.	Emakume eta Berdintasun Batzordearen bilera-kopurua Berdintasunerako Lantalde Teknikoaren bilera-kopurua Herritarrekin egindako bilera-kopurua Bileretako parte-hartzaile kopurua eta portzentajea sexuaren arabera
	T.G.4. Udal-teknikariak eta -politikariak gaitzea, haien alorretan genero-ikuspegia barneratzeko eta Berdintasun Arloarekin helburu horri begira lankidetzan aritzeko.	Trebakuntza jaso duten pertsona-kopurua eta portzentajea, sexuaren eta lan-arloaren arabera

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

ESKU-HARTZE ARLOA	HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARLERROTASUNA	T.G.5. Udal-araudian genero-ikuspegia txertatzea.	Genero-ikuspegia txertatuta egindako udal-araudi kopurua eta portzentajea
	T.G.6. Genero-ikuspegia txertatzea udal-aurrekontuetan.	Berdintasuna sustatzera bideratutako aurrekontu-kopurua eta portzentajea
	T.G.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.	Berdintasunerako klausulak edota irizpideak jasotzen dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen kopurua eta portzentajea
	T.G.8. Udal-organo nahiz gainontzeko guneetan emakumeen eta gizonezkoen arteko ordezkartza orekatua bermatzea.	Udal-organoen osaera sexuaren arabera

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

ESKU-HARTZE ARLOA	HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1. TOKIKO GOBERNANTZA ETA GENERO-ZEHARLERROTASUNA	T.G.9. Udal-estatistika eta -azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	Sexuaren aldagaia barnebiltzen duten euskarri-kopurua eta portzentajea
	T.G.10. Udaleko barne berdintasunerako I. Plana garatzea.	Planaren baitan garatutako ekintza-kopurua eta deskribapena
	T.G.11. Eskualdeko garapen-estrategian genero-berdintasunaren printzipioa jasotzea.	Eskualdeko garapen-estrategian genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurri-kopurua eta deskribapena
	T.G.12. Udaleko sailek bere politika eta jardueran genero-ikuspegia txertatzea.	Genero-ikuspegia barnebiltzen duten udal-jarduera kopurua eta portzentajea

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

ESKU-HARTZE ARLOA	HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
2. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	I.M.1. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	Sakanako I. Lurralde Protokoloaren baitan trebatutako profesional-kopurua eta portzentajea, sexuaren eta lan-arloaren arabera Sakanako indarkeria-kasu kopurua
	I.M.2. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	Sentsibilizazio-saioetan parte hartutako pertsona-kopurua, sexuaren eta rolaren arabera Antolatutako sentsibilizazio-kanpaina kopurua
3. ZAINZAK ETA BIZITZAK POLITIKA PUBLIKOEN ERDIGUNEAN	Z.E.1. Bizitzaren jasangarritasunerako zaintza-lanek duten balioa eta eragina ikusaraztea, eta horien erantzunkidetasuna sustatzea.	Nafarroako Zainketen aldeko Ituna sinatu izana Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza eskaintzeko dauden baliabideak eta Altsasuko zaintzaileen egoera aztertzeko diagnostikoa egin izana
	Z.E.2. Zaintzaile profesionalen eta zaintza-zerbitzuetako erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetzea.	Etkez-etxekeko laguntza-zerbitzua hobetzeko hartutako neurri-kopurua eta deskribapena

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.3. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

ESKU-HARTZE ARLOA	HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA	E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	Emakumeen ahalduntzea sustatzeko programaren baitan antolatutako jarduera-kopurua eta deskribapena Programan parte hartzen duten emakume-kopurua adinaren, jatorriaren, aniztasun funtzionalaren... arabera
	E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	Emakumeen partaidetza-kopurua eta portzentajea Udalak antolatutako prozesuetan Emakumeen partaidetza-kopurua eta portzentajea herriko izaera ezberdineko elkarteetan
5. HERRI BERDINZALEA	H.B.1. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna eta tratu onen kultura lantzea.	Hezkidetza-programan parte hartutako ikastetxe-eta ikasle-kopurua sexuaren eta adinaren arabera Hezkidetzan trebatutako hezitzaile-kopurua sexuaren eta lan-arloaren arabera
	H.B.2. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.	Feminismoarekin lotutako gaien inguruko trebakuntza jaso duten herritar-kopurua eta portzentajea sexuaren, adinaren, jatorriaren... arabera
	H.B.3. Emakumeen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.	Aitortza jasotako emakume-kopurua eta profila

5. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

5.4. Planaren komunikazioa

Komunikazioa eta herritarren partaidetza izanen da Berdintasunerako III. Planaren gakoetako bat. Izan ere, Planaren garapenari buruzko nondik norakoak emateaz gain, Udal-langile nahiz ordezkarien eta herritarren sentsibilizaziorako tresna ere bada.

Planaren garapenean zehar, **3 komunikazio-une hauek** egotea aurreikusten dugu:

1. Planaren hasierako komunikazioa

- Plana onartzeko testuinguruan, horren berri emanen da bai Udal-mailan, baita herritarrei begira ere. Barne-komunikazioari dagokionez, Udal-teknikari, langile eta ordezkari politikoei Planaren txostena bidaliko zaie. Kanpo-komunikazioari dagokionez, berriz, Udaleko komunikazio-bitartekoen (webgunea, sare sozialak...) nahiz tokiko komunikabideen bidez informazioa zabalduko dugu, eta aurkezpen publikoak egingen ditugu.

2. Planaren indarraldiko komunikazioa

- Udal-mailan, dauden segimendurako egituren bidez emango da Planaren garapenaren berri; nagusiki Emakume eta Berdintasun Batzordea eta Berdintasunerako Lantalde Teknikoa baliatuko dira horretarako.
- Herri-mailan, Planaren garapenarekin lotutako neurri batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren inplikazioa edota parte-hartzea behar duten neurrian. Kasuan kasu joan beharko dugu egokitzen.

3. Planaren amaierako komunikazioa

- Plana bere osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Udal barruan zein herri-mailan.

